

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MUTRIKUKO UDALA

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko ekainaren 24ean egin-dako bilkuran Mutrikun gizarte zerbitzuen alorrean diharduten elkarte, erakunde eta instituzioentzako dirulaguntzak emateko programa arautzeko 2026 ekitaldiari dagozkion oinarriak onartu zituen.

Kontuan harturik adierazitako oinarriak, dirulaguntza honi dagokion deialdia burutzen da eskariak aurkezteko epea irekiz.

Mutriku, 2026ko ekainaren 30a.—Alkatea. (4574)

Gizarte zerbitzuen arloko elkarteei dirulaguntzak emateko oinarriak.

I. Xedea.

Oinarri hauen xedea da Mutrikuko Udalak Gizarte Zerbitzuen sisteman jarduten duten elkarteei lehiaketa publiko bidezko dirulaguntzak eman ahal izateko baldintzak arautzea. Bestalde, elkarte horien jardute eremuan bereiztuko dira tokiko eta bailarako esku hartzeak.

Helburua elkarte jarduera bultzatzea eta herritarren arteko elkartasuna sustatzea izanik, honakoak finantziatuko dira:

a) Baztertuta, babesik gabe, menpekotasun-egoeran edo sozialki isolatuta edo arriskuan dauden giza taldeen prebentzio-rako, arretarako, sustapenerako eta talde horiek gizarteratzeko jarduerak edo proiektuak.

b) Partaidetza eta gizarte boluntarioritza sustatzea.

c) Sentsibilizazio proiektuak. Proiektu horiek, oro har, biztanleei edo sektore jakinei zuzenduko zaizkie: familiak; haurrak; pertsona elbarrituak, mendekotasun egoeran daudenak edota gaixoak; gutxiengo etnikoak; etorriberriak; preso ohiak; kontsumo-ohitura ez osasungarrietarako mendekotasuna, ludopatía... duten pertsonak; adinekoak eta gizarte arriskuko egoeran egonik, Gizarte Zerbitzuen laguntza behar duten talde guztiak.

II. Entitate onuradunak.

Dirulaguntza jaso nahi duten onuradunak irabazi asmorik gabeko elkarteak izan beharko dira, legez eratuak eta nahikoa egitura dutenak. Gainera, jardute-eremua Mutrikuko udalerria edota eskualdea izango dute; azken kasuan, jarduerak Mutrikuko udalerrian garatu beharko ditu edo mutrikuarrak artatu.

Onuradun izan nahi dutenek Gizarte zerbitzuen esparruan lan egin beharko dute partaidetza sustatzea, boluntarioritza sustatzea eta elkartasuna sustatzea helburu hartuta.

I. atalean jasota dauden kolektiboren batean eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonen laguntza ematea.

III. Bazterketak.

Deialdi honen ezarpen eremutik kanpo gertuko dira honako jarduera hauek:

1. 38/2003 legean 3. eta 13.2 artikuluetan aurreikusita-ko egoera batean sartuta daudenak.

AYUNTAMIENTO DE MUTRIKU

Anuncio

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 24 de junio de 2026, aprobó las bases reguladoras del programa de subvenciones a asociaciones, entidades e instituciones que desarrollen su actividad en el ámbito de bienestar social en Mutriku para el ejercicio 2026.

Teniendo en cuenta las bases expuestas, se procede a realizar la convocatoria correspondiente a esta subvención, abriendo el plazo de presentación de solicitudes.

Mutriku, a 30 de junio de 2026.—La alcaldesa. (4574)

Bases para la concesión de subvenciones a asociaciones de servicios sociales.

I. Objetivo.

Es objeto de las presentes bases regular las condiciones para que el Ayuntamiento de Mutriku pueda otorgar subvenciones mediante concurso público a asociaciones que trabajan en el ámbito de los Servicios Sociales. Por otra parte, en el ámbito de actuación de estas asociaciones se diferenciarán las intervenciones locales y comarcales.

Con el objetivo de fomentar la actividad asociativa y fomentar la solidaridad entre la ciudadanía, se financiarán:

a) Actividades o proyectos de prevención, atención, promoción e integración social de colectivos en situación de exclusión, desprotección, dependencia, aislamiento o riesgo social.

b) Fomento de la participación y del voluntariado social.

c) Proyectos de sensibilización. Estos proyectos se dirigirán, en general, a la población o a sectores concretos: familias; infancia; personas discapacitadas, dependientes y/o enfermas; minorías étnicas; inmigrantes; expresos; personas con adicción a hábitos de consumo no saludables, ludopatía...; personas mayores y todos los colectivos en situación de riesgo social que requieran ayuda de los Servicios Sociales.

II. Entidades beneficiarias.

Los beneficiarios de la subvención deberán ser asociaciones sin ánimo de lucro legalmente constituidas y con estructura suficiente. Además, su ámbito de actuación será el municipio y/o comarca de Mutriku; en este último caso deberá desarrollar sus actividades en el municipio de Mutriku o atender a los mutrikuarras.

Quienes deseen ser beneficiarios deberán trabajar en el ámbito de los Servicios Sociales con el objetivo de fomentar la participación, fomentar el voluntariado y fomentar la solidaridad.

Atención a colectivos contemplados en el apartado I y a personas con dificultades de inserción.

III. Exclusiones.

Las siguientes actividades quedarán fuera del ámbito de aplicación de esta convocatoria:

1. Quienes se encuentren en alguna de las situaciones previstas en los artículos 3 y 13.2 de la Ley 38/2003.

2. Duten izaera eta xedeagatik Gizarte Zerbitzuen arloari lotutako jarduera-eremu bakar batekin ere zerikusi zuzenik ez dutenak.

3. Jardueren izaera eta helburuak direla eta, udalaren beste sail batzuetako programa baten bidez bideratu behar direnak.

4. Jaiotza, arraza, sexua, erlijio iritziagatik diskriminazioaren bat egiten duten elkarteek aurkezten dituzten proposamenak ez dira kontuan izango.

5. Ezin izango dira onuradun izan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun aukeren printzipioen aurkako onarpen edo sarbide sistema, funtzionamendua, ibilbide edo jarduera duten erakundeak.

6. Deialdiari dagokien urtean Mutriku jardunik egiten ez duten elkarteak.

7. Inola ere ezin izango zaie dirulaguntzarik eman oraindik zuritu gabeko edo fondoak bueltatu beharra duten Erakundeei.

IV. Eskabideak eta aurkezteko epeak.

Eskaerak eta dokumentazio osagarria horretarako prestatutako eskaera erudian aurkeztu beharko dira Mutrikuko Udaleko erregistro orokorrean edo udaleko egoitza elektronikoa.

V. Aurkeztu beharreko agiriak.

Eskera lehen aldiz egiten dutenek edota egoera aldaketa dutenek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

— Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate erregistroan inskribatuta izanaren ziurtagiria.

— Elkartearen estatutuak.

— Elkartearen IFK edo identifikazio agiria.

— Elkartearen kontu korrontea.

— Elkartearen kurrikuluma: egindako jarduerak, helburuak, langile kopurua, baliabide materialak, eta abar.

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osatugabeak badira edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen bada, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzen ditzan edo beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio hala egingo ez balu eskaera baliogabetuta geratuko dela eta, besterik gabe, artxibatu egingo dela.

VI. Eskaerak baloratzeko irizpideak.

1. Elkartearen ibilbidea, esperientzia: azken hiru urteetan egindako esku-hartzeak (zer egin duten, non, eta zein emaitza lortu duten): 15 puntu.

2. Elkarte eskatzaileak Mutriku benetako presentzia duela erakustea kide-kopuruarekin, Mutriku gauzatutako ekintzeekin eta Mutriku beste elkarteekin edo herriko ekintzetan elkarlanean: 20 puntu.

3. Proiektua elkarteko kideei bideratuta egotea: 10 puntu / Proiektua herritar orokorre bideratuta egotea: 20 puntu.

4. Proiektuak osatzen ditu hauei bideratutako esku-hartzeak: bazterketa-arazoak dituztenei, desgaitasunen bat dutenei, hirugarren adinekoei eta Gizarte Zerbitzuen alorreko beharra duten beste edozein talderi: 15 puntu.

5. Proiektuaren helburuak, ekintzak, zuzenduta doan publikoa, iraungo duen denbora, zehatz-mehatz azaltzen dira, eta koherentzia dago gaiaren, publiko hartzailearen, planteatutako helburuen, proposatutako aktibitateen eta bilatutako emaitza eta ondorioen artean: 15 puntu.

6. Aurrekontua planteatutako proiektuari egokitzen zaio: 15 puntu.

2. Los que por su naturaleza y finalidad no guarden relación directa con ningún ámbito de actuación vinculado al área de Servicios Sociales.

3. Las que, por la naturaleza y objetivos de las actividades, deban canalizarse a través de un programa de otros departamentos municipales.

4. No se tendrán en cuenta las propuestas de las asociaciones que discriminen por razón de nacimiento, raza, sexo, opinión religiosa.

5. No podrán ser beneficiarias las entidades que tengan un sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria o actividad contrarios a los principios de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

6. Asociaciones que no desarrollen actividad en Mutriku en el año correspondiente a la convocatoria.

7. En ningún caso podrán concederse ayudas a Entidades que estén pendientes de justificación o que deban reintegrar fondos.

IV. Solicitudes y plazos de presentación.

Las solicitudes y documentación complementaria deberán presentarse en el modelo de solicitud habilitado al efecto en el registro general del Ayuntamiento de Mutriku o en la sede electrónica del mismo.

V. Documentación a presentar.

Quienes soliciten por primera vez o cambien de situación deberán presentar la siguiente documentación:

— Certificado de inscripción en el registro de asociaciones y entidades del Gobierno Vasco.

— Estatutos de la asociación.

— CIF o documento de identificación de la asociación.

— Cuenta corriente de la Asociación.

— Currículum de la asociación: actividades realizadas, objetivos, plantilla, medios materiales, etc.

En el caso de que la documentación aportada por la asociación solicitante sea incompleta o se acredite que no reúne los requisitos establecidos en las bases, se requerirá a la persona representante interesada para que en el plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos. Asimismo, se le advertirá de que, si no lo hiciera, la solicitud quedará anulada y se archivará automáticamente.

VI. Criterios de valoración de las solicitudes.

1. Trayectoria de la asociación, experiencia: intervenciones realizadas en los últimos tres años (qué han hecho, dónde y qué resultados han obtenido): 15 puntos.

2. Presencia real en Mutriku de la asociación solicitante demostrada por el número de miembros, las acciones llevadas a cabo en Mutriku y la colaboración con otras asociaciones en Mutriku o en acciones locales: 20 puntos.

3. Que el proyecto esté dirigido a los miembros de la asociación: 10 puntos / Que el proyecto esté dirigido a la ciudadanía en general: 20 puntos.

4. El proyecto complementa las intervenciones dirigidas a personas con problemas de exclusión, personas con discapacidad, tercera edad y cualquier otro colectivo con necesidades en el ámbito de los Servicios Sociales: 15 puntos.

5. Los objetivos del proyecto, las acciones, el público al que va dirigido, el tiempo que durará, se explican con detalle y hay coherencia entre el tema, el público destinatario, los objetivos planteados, las actividades propuestas y los resultados y conclusiones buscados: 15 puntos.

6. El presupuesto se adecúa al proyecto planteado: 15 puntos.

VII. *Eman beharreko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa eta diru kopuru horren izaera.*

Dirulaguntzak Mutrikuko udaleko aurrekontuan jasotako diru-ataletik ordainduko dira honako hauek kontuan hartuta: Udalak aurrekontuan jarri duen diru kopurua, entitate eskatzaile kopurua, eta jarduerak Mutrikuko udalerrian izango duten eragina.

Aurrekontutako diru kopuruarekin eskaera guztiei erantzuteko iristen ez bada, 50 puntu baino gehiago lortzen dituzten elkarteen artean banatuko da.

VIII. *Dirulaguntza ordaintzeko era eta epeak.*

Onarpena ematen den unean esleitutako kopuruaren % 60 ordainduko da.

Bigarren ordainketa jasotzeko (gainerako % 40ari dagokiona) programaren memoria aurkeztu beharko da aldez aurretik. Bertan gastuen balantzea agertu beharko da fakturen egiaztagiriak atxikita.

Aipatutako memoria aurkezten ez bada onartutako dirulaguntza galdu egingo da automatikoki.

Justifikazioak hurrengo urteko urtarilaren 31 baino lehen aurkeztuko dira. Ez da inolako kopururik emango langileek egindako gastuak ordaintzeko, dietak barne.

IX. *Instrukzioa.*

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, Gizarte Zerbitzuen sailak aztertuko ditu aurkeztutako eskaerak eta, hala balegokio, Udaleko organo eskudunari banaketaren proposamena egingo dio.

Dirulaguntzak lehiakortasun sistema bidez emango dira, oinarrietan ezarritako irizpideen arabera.

X. *Ebazpena.*

Eskabidea eta dokumentazioa aurkeztu ondoren, Gizarte Zerbitzuen sailak aurkeztutako eskabideak aztertuko ditu, eta, hala badagokio, ebazteko eskumena duen Alkatetzari egingo dio proposamena.

Udaleko organo eskudunak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hilabeteko epean ebatziko du. Epea amaitutakoan Udalak eskaeraren bati buruz berariaz inolako erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da.

XI. *Dirulaguntzen bateragarritasuna.*

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako dirulaguntzeekin, bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako dirulaguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori ez gainditzearen, ematekoa den dirulaguntza Oinarri hauen kargura murriztuko da.

VII. *Cuantía máxima y naturaleza de las subvenciones a conceder.*

El abono de las subvenciones se realizará a cargo de la partida presupuestaria del Ayuntamiento de Mutriku, teniendo en cuenta la cantidad presupuestada por el Ayuntamiento, el número de entidades solicitantes y la incidencia de las actividades en el municipio de Mutriku.

Si la cantidad presupuestada no es suficiente para satisfacer a todas las solicitudes, se repartirá entre las asociaciones que obtengan más de 50 puntos.

VIII. *Forma y plazos de pago de la subvención.*

Se abonará el 60 % de la cantidad asignada en el momento de la aceptación.

El segundo pago, correspondiente al 40 % restante, requerirá la presentación previa de la memoria del programa. En ella deberá figurar el balance de gastos con los justificantes de las facturas.

La no presentación de la citada memoria supondrá la pérdida automática de la subvención concedida.

Las justificaciones se presentarán antes del 31 de enero del año siguiente. No se abonará cantidad alguna para sufragar los gastos realizados por el personal, incluidas dietas.

IX. *Instrucción.*

Una vez presentada la documentación requerida, el departamento de Servicios Sociales analizará las solicitudes presentadas y, en su caso, elevará propuesta de reparto al órgano competente del Ayuntamiento.

Las subvenciones se concederán mediante el sistema de competitividad, de acuerdo con los criterios establecidos en las bases.

X. *Resolución.*

Una vez presentada la solicitud y la documentación, el Departamento de Servicios Sociales analizará las solicitudes presentadas y, en su caso, elevará la propuesta a la Alcaldía competente para resolver.

El órgano municipal competente resolverá en el plazo de un mes desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Transcurrido el plazo sin que el Ayuntamiento se haya pronunciado expresamente sobre alguna solicitud, ésta se entenderá desestimada.

XI. *Compatibilidad de las subvenciones.*

Las ayudas previstas en estas bases serán compatibles con otras subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o por entidades públicas o privadas, cualquiera que sea su objeto y finalidad.

En el supuesto de concurrencia con otras ayudas, la subvención total recibida no podrá superar el coste de las actuaciones subvencionadas. En este caso, y para no superar dicho límite, la subvención a conceder se reducirá a cargo de estas Bases.